

# Réinventer le monde

Collection Frac Aquitaine

2013.2.22 - 2013.5.5

## rekalde

Alameda de Recalde, 30 | 48009 Bilbao  
Tel. +34 94 406 85 32  
www.salarekalde.bizkaia.net

## Ordutegia

Asteartetik larunbatera: 10 - 14 eta 17 - 20:30  
Igande eta jai egunetan: 10 - 14  
Astelehenetan itxita


## Horario

Martes a sábado: 10 - 14 y 17 - 20:30 h  
Domingos y festivos: 10 - 14 h  
Lunes cerrado

## Opening hours

Tuesday to Saturday: 10 - 14 and 17 - 20:30 h  
Sundays and holidays: 10 - 14 h  
Monday closed

sarrera doan | entrada libre | admission free



Con la ayuda de



Eskerronak



# Réinventer le monde

Collection Frac Aquitaine

2013ko otsailaren 22tik maiatzaren 5era

- Europako eskualdeen artean proiektuak garatzeko AECT Akitania-Euskadi Euroeskualdearen laguntzari esker antolatu du *Réinventer le monde* erakusketa.

- *Réinventer le monde* taldeko erakusketak aurkezten digun ibilbidea bi garitan eta bi tokitan dago banatuta:

2013ko otsailaren 22tik maiatzaren 5era, Frac Aquitaine aretoaren arte garaikideko bildumaren erakusketa izango da Bilboko Rekalde Aretoan: hogeita hamasei pieza, Frantziako arte-eszenako hamahiru artista nabarmenek eginak.

Gero, urriaren 4tik abenduaren 28ra, Iratxe Jaio & Klaas van Gorkum artista euskaldunak eta holandarrak eraten duten taldearen lana egongo da ikusgai Frac Aquitaine aretoan: Bordeleko Hangar G2 erakusketa-gunean jartzeko berariatz asmatutako sail bat.

Izenburu bera dute bi zatiek, *Réinventer le monde*, bai eta asmo bera ere: gizartearen egiturazko krisialdian, errealitatea zalantzan jartzean arte garaikideak zein zeregin betetzen duen asmatzea.

- Alexandra Baurès komisarioak landu ditu erakusketaren ideia eta kontzeptua. Frantziako hamahiru artista hautatu ditu, belaunaldi desberdinetakoak, baina beren garaiko gizarteari behatzeko eta eraldatzeko borondateak lotzen dituenak. Era horretan, ikuslearen arreta esnarazi nahi da, errealitatea kritikatzeko duen gaitasuna piztu, umorea, kritika edo erresistentzia erabiliz, eta, bitartean, metaforak sortu, jolas eta irudimenaren bidez.

- Erakusketa lau ataletan antolatuta dago, eta 1970eko hamarkadaren amaieran hasi eta gaur egunera arteko lanak aurkezten ditu. Erakusketa eraten duten ikusmen- eta entzumen-formak egungo artean dauden horietatik dira: marrazkia, argazkia, collagea, soinu-instalazioa, bideoa, neoia eta eskultura.


- Rekalde Aretoak argitara eman duen argitalpenean, Alexandra Baurès komisarioaren testuak jaso dira, erakusketarekin batera. Horrez gain, Jaime Cuencaren testu bat dago, Iratxe Jaio & Klaas van Gorkum eraikitzen ari diren lanari buruzkoa.

**rekalde** Alda. Recalde, 30 - 48009 Bilbao - Tfno. +34 94 4068532 - www.salarekalde.bizkaia.net

## ERAKUSKETA

*Réinventer le monde* erakusketa **Claude Lévêqueren** (Nevers, Frantzia, 1953) obra batekin hasten da: giza burmuinaren marrakzi labirintikoa, neoi gorrien hodiekin egina. Pieza horrekin, artistak giza adimenari egiten dio dei, eta dei horrek durundi egiten du erakusketa osoan barrena.

Lehenengo atalak, **Egitea, ez egitea edo desegitea** izenekoak, berriz eskuratzen eta aztertzen du **Robert Filliouk** (Sauve, Frantzia, 1926 - Les Eyzies-de-Tayac-Sireuil, Frantzia, 1987) 1968. urtean asmatu zuen *Baliokidetasun printzipioa*. Objektuei, ekintzei eta ideiei ezartzen zaien proposamen horren arabera, hiru egoerak –ondo eginda dagoena, gaizki eginda dagoena eta egin gabe dagoena– gauza bakoitza eratzen duten zati baliokideak dira. Ondo eginda (eredua) eta gaizki eginda dagoena (akatsa) berdintzean, Filliouk zalantzan jarri zuen lan artistikoari – eta, oro har, lanari– lotutako balio-eskalaren barruan gauzak egiten jakiteak duen nagusitasuna. Era berean, eginda zegoenak zuen errealitate-maila berbera aitortzen zion egin gabe zegoenari (kontzeptuari). Erakusketa honetan, 1977. urteko *Telepathic Music n°7. The Principle of Equivalence Carried to a Serie of Five* bideoa dago ikusgai.



Pauline Bastard, *Beautiful Landscapes*, 2007-2010. Argazkia. 30 x 20 cm. Collection Frac Aquitaine. Argazkia © Pauline Bastard.

*Overlap* soinu-proposamenean eta **Bernard Fauconen** (Apt, Frantzia, 1950) *Les Mandarines* argazkian ere azaltzen da. *Les Grandes vacances* izeneko sailean, Fauconek naturan murgiltzeko unerik biziena berreraikitzen du, hau da, haurtzarora. **Pauline Bastardek** (Rouen, Frantzia, 1982), *Beautiful Landscapes* collageen sailean, hirietako

Horrez gain, **Joachim Mogarraren** (Tarragona, Espainia, 1954) *Série Biblique* osatzen duten bi argazki erakusten dira, Mogarrak gaizki eginda dagoenaren kontzeptua partekatzen baitu Filliourekin. Horri **Florian Pugnaireren** (Maisons-Laffitte, Frantzia, 1980) *Stunt Lab* bideo- eta eskultura-lana gaineratu behar zaio, gaizki eginda dagoen horretatik harantz jo, eta deseginda dagoena erabiltzen baitu lan egiteko.

Bigarren atalak, **Mendialdeko egunak** izenekoak, gizakiak naturarekin duen harremana aztertzen du, gehienbat hiritarra den gizarte batean, oraingoan. Lehenik eta behin, **Dove Alloucheren** (Sarcelles, Frantzia, 1972) *Melanophila II ou l'ennemi déclaré* marrakzi-sailak denboraren ideia sartzen du espazio naturalaren pertzepzioan, eta aurrez aurre jartzen ditu gizakiaren orduak eta eritmo naturala. Bestalde, sua eta bere indar suntsitzailea aipatzen ditu; eta ideia hori **Céleste Boursier-Mougenoten** (Niza, Frantzia, 1961)



Bertille Bak, *Faire le mur*, 2008. Bideoa koloreetan, 17'7". Filmaketaren argazkia. Le Fresnoy studio national des arts contemporains-en ekoizpena. Collection Frac Aquitaine. Argazkia © Bertille Bak.

jendea bi minutuz edo denbora gehiagoz geldituz denean edo aretoa hutsik dagoenean, berriz, argitu egiten da (2004. urtean Parisen sortutako artisten talde bat da Claire Fontaine). Hausnarketa bat da hori, “gorputzek espazioan duten botereaz, elkarrekin geldiarazteak duen garrantziaz”, artistak “giza greba” deitzen duen horretaz. Lan hori harremanetan dago **Bertille Baken** (Arras, Frantzia, 1983) *Faire le mur* bideoarekin, bideo horretan Frantziako iparraldeko Berlin meatze-herriko biztanle-erkidego bat azaltzen baita, Administrazioak kaleratu nahi duena. Artistak alegia bat eraikitzen du, biztanleen parte-hartze eraginkorraren bidez; eta errealitatea burlazko moduan aldatzea proposatzen du, mendeku poetiko oso bat.

Laugarren atalak, **Gogoeta egiteko objektuak** deitutakoak, ikusleari galderak egiten dizkieten eskultura-ereduen aukeraketa bat egiten du. Barneko kontuetatik kontu kolektiboetara zabalduz, munduan jarduteko ditugun moldeak salatzen dituzte. **Xavier Veilhanen** (Lyon, Frantzia, 1963) *Le véhicule* (Ibilgailua, 1995-1996) lanak automobilaren teknologia nabarmentzen du, bere merkatu indartsuari aipamena egiteko. **Philippe Rametteren** (Auxerre, Frantzia, 1961) *Sans titre provisoire (Borne à révolte)* tresnak –hau da, Behin-behineko titulurik gabe (Gidatu errebolta pizteko)– gure jokaera zibikoa arrazoitzen du. Hala, bada, **Tatiana Trouvék** (Cosenza, Italia, 1968) ezkutuan dagoena eta ahaztutakoa berreskuratzen, antolatzen eta artxibatzen ditu bi piezatan, hain zuzen, *B.A.I - Bureau d'Activités Implicites* edo Jarduera Implizituen Bulegokoak diren *Cellule de sable* (Hareazko gela) eta *Les Fantômes* (Mamuak) lanetan.

Erakusketako ikusleei agur esango dien lana **Joachim Mogarraren** *Le bouquet perpétuel* (Betiereko sorta) da, hau da, hiru arrosa heze pitxer batean sartuta. Artistak aretoko zaintzaileen esku utzi duen keinu soil bat da, eta aditzera eman nahi du artea egunero besteekin partekatzen den gutxieneko zerbait dela.

biztanleek naturarekiko duten irrika indartzen duten irudiak desegiten ditu.

Hirugarren atalak, **Erresistentzia** izenekoak, agerian jartzen du pertsonak beren bizitza gobernatzeko duten ezintasuna, haziz doan kontrol sozialaren eta krisiaren esparruan. **Claire Fontaineren** *STRIKE, K. Font, V.1* neoia itzalita egoten da espazioan mugimendua dagoen bitartean, eta